

Pentsamendu mastekatu gabea eskura

*Negu minean
zuriz estaliren ditun bazterrak
hire soina, sabela eta izterrak*

*Negu minean
zuriz estaliren ditun herriak
hire ahoa eta ezpain gorriak...*

*Negu minean
zuriz estaliren ditun haginaren adarrak
eta busti eginen hire begi nabarrak...*

*Negu minean
zuriz estaliren ditun sahatsak
haizeak orrazturen hire adatsak...*

*Negu minean
hormatu eginen ditun inguruko ur latsak
eta hire ohoretan iraganen ditun arratsak...*

“NEGU MINEAN” dut Patziku Perurena 1987an kanta egin zuten geroztik. Hitz eder haietan bota genuen aingura, ez betiko, baina portua dugu poema musikatu hura. Hamaika urtean lagun egin diguna. Bistan da, *Negu minean* baino gehiago da Perurena, da zenbaki da kolore da poesia da narrazio da mundu bat, guztiz beretik bizi duena, irakurlearekin partekatze zinezko borondatea duena. Zorionez.

Oraindik orain, *Saski bete intxaur. Ezalditan bilduak* ekarri digu –Koldo Izagurrek bete-betea asmatu zuenez–, “iritzi pertsonaleko eta behako zorrotzeko” artikulugileak. Iritzi eta behako horietara bidean abiatu gara liburuan barna. Ez genuen besterik nahi, Perurena pertsonala, Perurena zorrotza baizik. Eta hortxe bera ageri da, bederatztik zazpira, saskira bildu dituen intxaur ederren artean. Idazleak bere lana eskaini digu, nork bere baitan egos dezan. Ez du alferreko azalpenik eman nahi...

“Ipuina amaitzen ari zen, kontalari zaharra, entzuleak inguruan adi zituela. Ipuina amaitu zuenean, denak isilik gelditu ziren,

bakoitza bere gogoetarekin, zerozeren zain bezala. Halako batean, entzuleetako batek esan zion:

– Ipuin ederra kontatu duzu, baina ez diguzu ipuinaren esanahia azaldu.

Ipuin kontalari zaharrak hala erantzun zion:

– Zer irudituko litzaizuke, inork intxaur bat eskainitakoan, ongi mastekatu eta ahotik eskura emanen balizu.

– Mastekatuta ez! –erantzun zion entzule batek.

– Nik nahiago dut oskolik kendu gabe –esan zuen beste batek, –bakoitzak bere eskola apur dezala.

– Oskola apurturik, umeentzat bakarrik.


– Eta maiteminduentzat...

Atzenean, kontalari zaharrak, hala erabaki zuen:

– Mastekatuta inoiz ez, orduan. Oskola kenduta umeentzat eta maiteminduentzat bakarrik. Besteentzat oskol eta guzi”.

Perurena da kritika, da mina. “Nik uste, insolidarioa ez ezik, gizarte axolagabea sortu dela. Ez bakarrik laneko kontratuetan, baita harreman afektiboetan ere (...) Nik uste, gogoeta zuhur eta patxadakoa hutseraino ekarri dela, eta haren lekuan, pentsamendu bakarra, erreakzionario hutsa ezarri dela. Numero huts gara jadanik: horrenbeste boto, eta kitto. (...) Ez, ezin nengoke lasa, panorama honekin, eta uste dut jende askori gauza berbera gertatzen zaiola. Espero dut hemendik 20-30 urtera oinaze honetatik ateratzea. Orduan errauts izanen naiz, baina errauts maitemindua, poetak esan bezala”.

Perurena da bidaiari porrokatua, da desadostasuna. “Bizia liburua bezala omen da, eta bere txokotik atera ez dena, liburu horren aurreneko orria besterik leitu ez duena. Ez nago konforme. Bere txokoan deus ikasten ez duenak, ez baitu deus ikasten munduan barrena. Bere txokoan mila gauza ederrek lilurutzen duenak, berriz, bere baitan darama mundu guzia”.



*Saski bete
intxaur.
Ezalditan
bilduak
Patziku
Perurena*

Alberdania,
2012.



Perurena da iritzi pertsonala eta behako zorrotza. “Niri, nolakoak garen ohartzea, eta esatera arriskatzea gustatzen zait, ilunpeko egia bilanahi horrek libertitzen nau bizien, funtsean deusetarako balio ez duela ongi jakin arren”.

Perurena da “belar moztu eta ez moztu bakoitzaren usaina” dakiena, da Maisu Juan, da Peru Abarka. “Nik ez nuen ardirik ezagutu etxean. Nire oroitzera artaldea saldua zuten. Baina joareak ez. Joareak artetik haketik zintzilik egoten ziren. Tiki eta handi, hirutan hogeit joaretik goiti igoal: dunbak, joalaundiak, pulunpak, pullunpa koxkorak, pullunpa ttikiak, kalankak, kalaska haundiak, kalaxka ttikiak, joalarriak, joalborrak, errobil joareak, zintzerriak, txintxerri ttikiak, behi joareak, behor joareak, ahuntz joareak, bildots joareak, ttalakak, bi soinuak, nabariak, motelak, mihigabeak...”.

Perurena da hau eta hori eta hura irakurtzen duen idazlea. Egas Moniz eta Pello Txato, Orixe eta Mark Twain, Jose Yanguas eta Alonso Lopez Corellakoa, Zaratustra eta Jean Giradoux, Friedrich Nietzsche, Eduardo Gil Bera eta Joseba Sarrionandia, Baltasar Gracian eta Karlos Luñusorokoa, Ignacio Malaxecheverria eta J.E. Cirlot, Wendorth Webster eta Toribio Etxebarria, Atxaga eta Enzensberger...

Perurena da euskara, bizia, aho-idatzizkoa, bridarik aise ametitzen ez duena. “Ez da bakarrik xuxen hitzegite edo idazte kontua, libertate kontua ere bada. Hizkuntza-lexiko zabala eta nabardura ugariak jakitea, iduritzen zaio askori apaindura eta pedanteria hutsa dela, eta ez da ohartzen hitzen bidez sentitzen, aztertzen, jasotzen eta adierazten dugula garen guzia (...) Gizatasun osoa pasatzen baita, azken batean, hitzetatik. Ez baitugu hitza beste tresnarik, munduaz eta mundukoez ohartzeko eta adierazteko”.

Perurena da literatura. “Biziari berari darion atsegina (...) arteak, bizia barren-

tzen, edertzen, gozatzen, osoago ikusten laguntzen du (...) Behin edo behin ibilia naiz Eduardorekin. Txoil mozkortu ere bai elkarrekin. Baina Gil-ek, nere lagunik onena bihurtuko balitz ere, ez lidake inoiz emanen haren liburuek eman didaten atseginik. Literatura, beste inon aurkitu ezin dudana gizamoduaren ahotsa da nerezako”.

Perurena da, esan dugu, iritzi pertsonala eta behako zorrotza. “Niri, nolakoak garen ohartzea, eta esatera arriskatzea gustatzen zait, ilunpeko egia bilanahi horrek libertitzen nau bizien, funtsean deusetarako balio ez duela ongi jakin arren”.

Perurena da idazle bat bizitza bizi duena, pekoz gora bizi dugun gizartearen kontraesanak erraieraraino bizi dituenak, arriskuak hartzen dituenak, esatekoak esaten asmatzen duena, haurretan itzain ibilitako idazlea, “belar moztu eta ez moztu bakoitzaren usaina” aditzen dakiena eta usain egiteko eskaintzen diguna, ahozkoetik edaten inoiz ase ez dena, idatzari ongietorria egin diona, intxaurrak bildu eta irakurlea, bere baitako intxaurrak irakurleari eskura jartzen dizkiona, “maste-katuta inoiz ez”.

– Ez da pentsamendua gehiegi garatzen eta inpresio xumeetan geratzen dira askotan ideiak –esan du gure ondoan kritika-riak.

– Oskola kenduta umeentzat eta maite-minduentzat bakarrik. Besteentzat oskol eta guzi –erantzun dio jaun kritikariari kontalari zaharrak, erantzun dio Patzikuk, erantzun diogu hirurok... ■

Miel A. Elustondo

